

FUNTSEZKO JARDUERA

Funtsezko jarduerak zeintzuk diren zehaztea ezinbestekoa da balio-proposamen aurrera eramateko, garatzeko, bezeroengana iristeko, bezeroekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko. Funtsezko jarduerak, produkzioa, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak kudeatzea dira. Gure enpresaren kasuan, gehien bat sareko jardueretan oinarritzen gara, web gunea delako gure proiektuaren muina.

Funtsezko jarduerekin hasi baino lehen, gure balio proposamena gogoratzea beharrezkoa iruidtzen zaigu. Gure enpresa ideia gazteej udaran lana lortzeko web gune bat sortzea da, modu horretan lana lortzeko prozesua erraztuz.

Produkzioaren arloan, gazteek gure inguruko jatetxe, taberna eta super merkatuetan egingo dute lan. Hain zuzen ere, Alcampo eta Eroski super merkauekin jarriko gara harremanetan. Taberna arloan, aldiz, Toki-alai eta Kabitxorekin kolaboratuko dugu. Bukatzeko, jatetxei dagokienez, Mateo eta Intxisuko lanpostuak izango dira gure eskaintzak.



Enpresa hauekin kolaboratzeko arrazoiak honano hauek dira. Hasteko, gure inguruko enpresak dira, eta beraiekin harremanetan jartzea errazagoa egingo zaigu. Hortaz gain, gazteen perfilerako hoberen egokitutako lanak eskeitzen dituztenak dira, eta hori kontuan eduki dugu hautaketak egiterako garaian.

Sortuko zaizkigun arazo posibleak izan daizteke, gazteak lan hori egiten duten bitartean ikasketak egiten egotea, ondorioz, ordutegiak egokituak izan beharko dute eta agian enpresek ezin dute malgutasun hori eskaini, hala ere esan bezala biek euren aldetik malgutasun pixka bat eman beharko dute ordutegiekin bat egin ahal izateko.

Beste arazo posible bat da, lan postu batek demanda handia izatea eta gazte guztiek leku berean lan egin nahi izatea. Hori konpontzeko, harpidetza-prima ordaindu duten gazteek aukeratzeko garaian lehentasuna edukiko dute. Horrez gain, ikasketak eta curriculumak ere kontuan hartuko dituzte enpresek langileak kontratatuzeko orduan.



Gure enpresa webgune batean oinarrituko da, bertan eskainiko ditugu beharrezko zerbitzu guztiak. Web-gunea erabiltzen duen bakoitzak inkesta bat pasa beharko du. Inkesta horretatik jasotako erantzunen arabera jakingo dugu bezero bakoitzari zein motatako zerbitzua eskaini. Web-guneak erabiltzeko modu erraza izango du, ezin dugu web-orri konplexu bat sortu, helburua erosotasuna bermatzea da.

Behin baino gehiagotan esan dugun bezala web-guneak “premium” atala ere izango du, gehiago ordaintzeko prest dauden bezero horientzat. “Premium” atal honetara harpidetzen direnentzako erraztasun handiagoak eskainiko dira eta lehenetsua izango dute lanen batera aukeratuak izaterakoan. Web-guneaz arduratuko denak, berrikuntzak jarriko ditu web-gune honetan denbora pasatzen doan heinean eta proiektua aurrera doan horretan.

Ez ditugu gure enpresaren jarduerak beste enpresa batzuen esku utziko, dena guk kudeatuko dugu. Hau da, funtsezko jarduera guztietaz gu arduratuko gara eta horiek aurrera eramateko, lan bakoitza egiteko gure taldeko arduradun bat dugu.

Laburbilduz, funtsezko jarduera guztiak egoki eta arduraz betetzea behar beharrezkoa da gure enpresa proiektua aurrera eramateko, horiek baitira gure ideia burutzea ahalbidetzen digutenak. Eta aipatu bezala, sareko jarduerak dira gure oinarria.